

[Cast/Eus]Las plataformas de Alava por el Tren Social presentan la alternativa a los nuevos trazados

PLATAFORMA POR EL TREN SOCIAL DE ÁLAVA :: 20/04/2023

Las plataformas de Alava por el Tren Público y Social han comparecido hoy en el parlamento vasco, para presentar el estudio de alternativa a los nuevos trazados, propuestos por el Ministerio de Transportes

[Euskara]

ARABAKO TREN SOZIALAREN ALDEKO PLATAFORMAREN PRENTSA OHARRA

Tren Publiko eta Sozialaren aldeko Arabako plataformek agerraldia egin dute gaur Gasteizko Parlamentuan. Agerraldian, espainiar estatuko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak, Burgos, Gasteiz, Iruñea eta Castejon lotzeko, AHTrako bakarrik, proposatutako trazadura berrien alternatibari buruzko azterlana aurkezteko izan da.

Aurkeztutako azterlan tekniko alternatiboa egungo bideen egokitzapenean eta hobekuntzan oinarritzen da, eta eragindako kontzejuen eskariak jasotzen ditu, Garraio Ministerioak proposatutakoa baino 2.000 milioi euro gutxiagoko kostu ekonomikoarekin.

Abantaila handi bat planteatzen du: salgaien eta pertsonen trafiko mistorako erabil daiteke. Era berean, abiadura handiko distantzia luzeko zerbitzua eta aldiriko eta eskualdeko trenak ere barne hartuko lituzke, eskaera guztia trenbide-plataforma bakar batekin betez.

Alternatibak erakusten duenez, Burgos Gasteizekin eta Gasteiz Iruñarekin lotzen dituzten tren lasterrentzako bidaia-denborak 10 eta 8 minutu baino ez dira luzatuko, hurrenez hurren, baina trukean, ibilbide osoko geltoki eta geraleku guztiak hobetu eta berreskuratuko dira.

Egungo azpiegitura modernizatu eta egokitzeari esker, gaur egun trenak herrietatik igarotzeak hobera egiten du segurtasunari dagokionez, eta lurperatzeak ere planteatzen dira, hiri-integrazio hobe lortzeko.

Herri-plataformen eta Adifen eta Renfen ordezkaritza duten sindikatu guztien (UGT, CCOO, CGT/LKN, SF, SEMAF) arteko akordioen ondorioz sortutako konponbide erreal eta teknikoki bideragarri bat emateko asmoarekin egin da azterketa.

Talde politiko guztiei eskatzen zaie alternatibaren aldeko jarrera har dezatela eta bere egin dezatela; izan ere, konponbide tekniko bat izanik, borondate politikoa baino ez da behar gure herriei kalitatezko tren-zerbitzua emateko eta lurraldea egituratzeko, ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izango duena.

Gogorarazten da 2022ko urtarrilean Garraio Ministerioak 200.000 euroko aurrekontu-partida bat bideratu zuela ADIFek azterlan bat egin zezan Burgos, Gasteiz, Iruñea eta Castejon arteko trazadura egokitu eta modernizatzeari buruz, baina oraindik ez dela egin.

Abiadura handiko trenak bakarrik erabiltzeko trenbide-plataforma berri bat eraikitzeko obrak eta lizitazioak gelditzea exijitzen dugu. Egungo trenbideak egokitu eta modernizatzeko azterlana aurrera eramatea eskatzen dugu, eta Tren Sozialaren aldeko Plataformek aurkeztutako eta eragindako herri guztiek abalatutako azterlana oinarritzat hartzea.

Lanak gelditzeko exigentziak zentzu handiagoa du gaur egun, pare bat asteko albistearen ondoren. Izan ere, Jundizko AHTren obrek Astorga eta Bordele lotzen zituen galtzada erromatarraren Arabako zatirik handiena, Iter XXXIV izenekoa, suntsitu nahi dutela jakinarazi ziguten. Era berean, duela 5.000 urteko Neolitoko herrixka suntsitu nahi da, oso kontserbazio-egoera onean.

Gainera, Frantziako estatuak Hendaia eta Bordele artean abiadura handiko tren-azpiegitura berri bat EZ eraikitzea erabaki ondoren, eta Irun, Baiona eta Bordeleko alkateek egungo trenbide-trazadura hobetzeko proposamena egin ondoren, gure alternatibak eta obrak gelditzeko eskakizunak inoiz baino indar handiagoa hartzen dute.

[Castellano]

NOTA DE PRENSA DE LA PLATAFORMA POR EL TREN SOCIAL DE ALAVA

Las plataformas de Alava por el Tren Público y Social han comparecido hoy en el parlamento vasco, para presentar el estudio de alternativa a los nuevos trazados, propuestos por el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, exclusivos para el Tren de Alta Velocidad, entre Burgos, Iruña, Gasteiz y Castejon.

El estudio técnico alternativo presentado se basa en la adecuación y la mejora de las vías actuales y recoge las demandas de los concejos afectados, con un coste económico 2.000 millones de euros inferior al propuesto por el Ministerio de Transportes.

Plantea la gran ventaja de que podría ser utilizado para tráfico mixto, de mercancías y personas. A su vez, daría cabida tanto al servicio de larga distancia en velocidad alta, como a los trenes de cercanías y regionales, cubriendo así toda la demanda con una sola plataforma ferroviaria.

La alternativa demuestra que los tiempos de viaje para los trenes rápidos que conectasen Burgos con Gasteiz y Gasteiz con Iruña, apenas se incrementarían en 10 y 8 minutos respectivamente, pero a cambio, se mejorarían y recuperarían todas las estaciones y apeaderos del trazado completo.

La modernización y adecuación de la infraestructura existente, permite que el actual paso de los trenes por los pueblos, mejore en cuanto a seguridad, planteando incluso soterramientos para lograr una mejor integración urbana.

El estudio se ha realizado con la intención de aportar una solución real y técnicamente viable, que nace de los acuerdos logrados entre las plataformas populares y todos los sindicatos con representación en Adif y Renfe (UGT, CCOO, CGT/LKN, SF, SEMAF).

Se invita a todos los grupos políticos a que se posicionen a favor de la alternativa y a que la hagan suya, ya que teniendo una solución técnica, sólo hace falta voluntad política para dotar a nuestros pueblos de un servicio ferroviario de calidad y que vertebral el territorio, con un mínimo impacto medioambiental.

Se recuerda que en enero del 2022, el Ministerio de Transportes destinó una partida presupuestaria de 200.000 euros, para que ADIF realizara un estudio sobre la adecuación y modernización del trazado entre Burgos, Gasteiz, Iruñea y Castejón, que aún no se ha ejecutado.

Exigimos la paralización de las obras y licitaciones para la construcción de una nueva plataforma ferroviaria para uso exclusivo de alta velocidad. Solicitamos que se lleve adelante el estudio de adecuación y modernización de las vías actuales y se tome como base el estudio presentado por las Plataformas por el Tren Social y avalado por todos los pueblos afectados.

La exigencia de paralización de las obras cobra hoy más sentido después de la noticia de hace un par de semanas en la que se nos informaba de que las obras de TAV en Jundiz quieren destruir el mayor tramo conocido en Álava de la calzada romana que unía Astorga y Burdeos, la llamada Iter XXXIV. Asimismo se pretende destruir un poblado neolítico de hace 5.000 años en un muy buen estado de conservación.

Además, tras la decisión del estado francés de NO construir una nueva infraestructura ferroviaria para uso exclusivo de alta velocidad entre Hendaia y Burdeos y la propuesta de los alcaldes de Irun, Baiona y Burdeos de mejora del trazado ferroviario actual, nuestra alternativa y la exigencia de parar las obras toma más fuerza que nunca.

<https://eh.lahaine.org/cast-eus-las-plataformas-de>